



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

23. Ordenantza Fiskala Kultur Zerbitzu Orokorrak Emateagatiko Tasa

I. XEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz, Kultur orokorrak Zerbitzuengatiko Tasa ezarri da. Tasa horretan zerga ordenantza hau izango da aginduzko, eta honen arauak aurrean aipatutako abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauan ezarritakoaren arabekoak izango dira.

II. ZERGA EGITATEA

2. ARTIKULUA

Tasa honen zerga egitatea ordenantza honetan araupetutako kulturako eta Berdintasunerako zerbitzuak egitea da.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA

Tasaren subjektu pasibo zergadunak ordenantza honetan araupetutako zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoak edo erakundeak izango dira, edo haien onura jasotzen dutenak.

IV. ZERGA-OINARRIA

4. ARTIKULUA

Zerga oinarria ordenantza honetan araupetutako zerbitzuak erabiltzea da.

V. KUOTA

5. ARTIKULUA

Tarifa hauek ezarri dira:

KONTZEPTUA	EUROAK
KULTURA	
Pintura-eskola 1. taldea: 3 ordu astean	30,85 hilabetea

KONTZEPTUA	EUROAK
2. taldea: 2 ordu astean	29,50 hilabetea
3. taldea: ordubete astean	14,80 hilabetea
Honako egoera hauetan dagoela egiaztatzen duen pertsonari: langabea, erretiratua, 16 urtetik beherakoa, ikaslea eta gazte txartela duena, hileko kuotaren % 10eko kenkaria aplikatuko zaio. Langabezian dauden pertsonen hiru hilean behin egiaztatu beharko dute egoera horretan jarraitzen dutela. Era berean, kultura-zerbitzuei jakinarazi beharko dizkiete egoera horretan gertatzen diren aldaketak. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuarekin bat etorriz, mendeko pertsonen zaintzaile direla egiaztatzen duten emakume eskatzaileek lehentasuna izan behar dutela ezartzen da jarduera horretara joateko ordutegiak hautatzeko orduan. Bestalde, talde bakoitzean 2 plaza gehiago gordeko dira mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileak direla egiaztatzen duten emakumeen eskaerari erantzuteko. Kuota hileror ordainduko da. Ikasturtea hasten den hilabetea ikasturtea ofizialki hasten den egunetik aurrera zenbatuko da, erakundeak ezarritako egutegiaren arabera. Gainerako hilekoak osoak izango dira, salbu eta eskola-egutegiaren ondorioz irakastorduak murrizten diren hilabeteetan, benetako eskola-orduak zenbatuta. Ikasleek hala nahi dutelako, jardueraren hasiera-data ez bada ofizialki ezarritakoa, jarduera hasten den hilabeteko hileko kuota osoa ere ordainduko da. Zerbitzutik baja eman nahi izanez gero kuota osoak ez ordaintzeko, idatziz jakinaraziko da baja eman aurreko hilaren 25ean, beranduenez; bestela, hurrengo hilabetean fakturatuko da, jarduerara joan zein ez. Era berean, hilabetea hasi ondoren zerbitzuan gertatzen diren bajak osorik kobratuko dira. • Ermua Antzokia - Antzerkia eta musika (zuzeneko ikuskizunak): prezio bat ezarriko da ikuskizun bakoitzera sartzeko, ikuskizun horren cachet-aren arabera: 4.000,00 €-tik beherako cachet-a duten haurrentzako ikuskizunak	4,00 €-tik 6,00 €-ra



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

23. Ordenantza Fiskala Kultur Zerbitzu Orokorrak Emateagatiko Tasa

KONTZEPTUA	EUROAK
4.000,00 €-tik gorako cachet-a duten haurrentzako ikuskizunak	6,00 €-tik 10,00 €-ra
Tokiko konpainien eta afizionatuen ikuskizunak	5,00 €-tik 10,00 €-ra
Ikuskizun profesionalak, tokikoak ez direnak, horien cachet-a 5.000,00 €-tik beherakoa denean.	8,00 €-tik 12,00 €-ra
Ikuskizun profesionalak, tokikoak ez direnak, horien cachet-a 5.000,00 €-tik 8.000,00 €-ra bitartekoa bada.	10,00 €-tik 15,00 €-ra
Ikuskizun profesionalak, tokikoak ez direnak, horien cachet-a 8.000,00 €-tik gorakoa bada.	15,00 €-tik 20,00 €-ra
Lobiano K.G auditoriumean baldintza hobeak izateagatik programatutako formatu txikiko ikuskizunei eta publiko minoritariorako kontzertuei tarifa-sistema bera aplikatuko zaie:	
- Zinema komertziala	
Haur-saioa	3,25 €
Helduen saioa	5,20€
Erretiratuak eta gazte txartela dutenak, agiri bidez egiaztatuta.	4,60€
- Zine-kluba	
Sarreraren prezioa	4,15€
- Zinemako bonuaren hileko prezioa	14,00 €-tik 20,00 €-ra
Zinemara sartzeko prezioak 2,00 € igoko dira sarrera bakoitzeko, 3Dko eta zinema digitaleko proiektzio guztietarako. Prezio horren baitan betaurrekoak emango dira.	
- Publizitate-hedapenaren prezioa	
Kultura eta Gazteria Saileko hedabideetan publizitatea txertatzea.	1etik 3.660ra

KONTZEPTUA	EUROAK
IKASTAROAK ETA JARDUERAK	
Kultura-, sormen- eta/edo jolas-izaerako ikastaroak eta jarduerak, formatu txikian	
Ikastaroak: tarifa aldakorra ezartzen da, eskaintzen den jardueraren kostuaren arabera.	
Honako egoera hauetan dagoela egiaztatzen duen pertsonari: langabea, erretiratua, ikaslea eta gazte txartela duena, kuotaren % 10eko kenkaria aplikatuko zaio.	
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, antolatutako ikastaro bakoitzean 2 plaza gehiago gordeko dira mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileak direla egiaztatzen duten emakumeen eskaerari erantzuteko.	12,10 €-tik 40,05 €-ra
Lobianoko auditoriumean eskaintzen den formatu txikiko programazio eszenikoak areto horren neurrietara egokitzeko beharrari erantzuten dio, Antzokiko aretoarekin alderatuta. Ondorioz, espazio honetan eskaintzen diren ikuskizunetarako sarreraren prezioak bat datoz Antzokiko tarifekin.	
GAZTERIA	
Gazteentzako tailer laburrak	
13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako formatu txikiko jarduerak tarifa ordaintzetik salbuetsita daude.	
Gazteen jarduerak herritik kanpo	
Txangoak, gaua igarotzea, kultura-sarrerak eta antzeko ezaugarriak dituen beste edozein jardura eskatzen dituzten jardueretan parte hartzeak kostu bat izango du, eta horren barruan sartuko dira sarreraren, egonaldien, garraioaren eta/edo jardura dinamizatzen duen enpresaren kostua, gastu orokorren kontzeptuan % 25 gehituta (materiala, lokalak, udal-baliabideak, etab.).	
Matrikularen zenbatekoa kalkulatzeko, jardueraren kostua zati jarduerak ahalbidetzen duen gehieneko parte-hartzaile kopurua egingo da.	
Jardura horiek matrikularen prezioaren gaineko % 60ko gutxieneko hobaria ezartzen dute.	



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

23. Ordenantza Fiskala Kultur Zerbitzu Orokorrak Emateagatiko Tasa

KONTZEPTUA	EUROAK
Gazteentzako aisialdiko jarduerak udan.	
Tasa arrunta (egun erdia)	81,60 €/ aste
Familia ugariko kide izanez gero edo neba-arreba bat baino gehiago inskribatuz gero (bakoitza), izena ematen den aste-kopurua edozein dela ere, edo guraso bakarreko familiak izanez gero.	40,80 €asteko
KULTURA-INSTALAZIOAK ALOKATZEA	
Ermua Antzokiaren alokairua	
Jendeari kobratu gabeko jardueretarako.	510,00 €
Jendeari kobratzen dioten jardueretarako.	1.530,00€
Lobiano Kultur Gunea alokatzea	63,10 €/ ordu
Tarifa horietan ez dira sartzen jarduera jakin batzuk egiteko behar diren teknikarien asistentziatik eratorritako gastuak.	
Tasak ordaintzetik salbuetsita daude:	
Eusko Jaurlaritzaren erregistro orokorrean inskribatuta dauden eta zerga-egoitza edo jarduera udalerrian duten irabazi asmorik gabeko elkarteak eta erakundeak.	
Sustatutako jarduerak espazio horren erabileratik eratorritako kobrantza eta/edo diru-sarrerak badakartza, salbuespen horri eutsiko zaio, baldin eta egiaztatzen bada helburu sozialetarako erabiliko direla.	
Azkenik, herritarrei onura zuzen eta orokorra ekartzeko tokiko jarduerak egiteko alokairuen kasuan, udal-testuinguruan helburu publiko, sozial eta/edo komunitario argia badute, Ermuko Udalak, alde zuzenetik ebaluatuta, antolatzailea tasa edo lotutako gastuak ordaintzetik salbuestea erabaki ahal izango du.	
EUSKARA	
- Gabonetako jarduerak (Negulekuak)	
Tasa arrunta.	56,10€

KONTZEPTUA	EUROAK
Familia ugariko kide izanez gero edo anai-arreba bat baino gehiago inskribatuz gero (bakoitza) edo guraso bakarreko familiak izanez gero. - Aisialdiko jarduerak udan	44,90€
Tasa arrunta.	40,80 € asteko
Familia ugariko kide izanez gero edo anai-arreba bat baino gehiago inskribatuz gero (bakoitza), izena ematen duten asteen kopurua edozein dela ere, edo guraso bakarreko familiak izanez gero.	30,60 € asteko

VI. KUDEAKETA ETA DIRU BILKETA

6. ARTIKULUA

Ordenantza honetan araututako jardueretan matrikula itzultzeko eskatu ahal izango da, baldin eta, jarduerak hasi aurretik eta erantsitako txosten medikoarekin, gomendatzen bada jarduera horietan ez parte hartzea haurraren gaixotasunagatik, ebakuntza kirurgikoagatik edo istripuagatik, bai eta eskatzailearen kontrol-ahalmenetik kanpoko ezinbesteko arrazoiengatik ere, eta, betiere, itzultzeko eskaera eragin duen arrazoa justifikatzen duen dokumentu bidezko egiaztagiria aurkeztuta.

Itzulketak horiek interesdunak aldeztu aurretik idatziz eskatu ondoren hasiko dira.

Pintura-tasa zerbitzua erabiltzen denetik sortuko da, eta hilero kobratuko da.

Hilabete bakoitzaren 1etik 9ra bitartean kultura-zerbitzuek udal-bilketara eramango dute ikasleen errolda, ikasle bakoitzak ordaindu beharreko kuotekin. Hilero ordaintzeko ordainagiria hilaren 10etik 15era bitartean egingo da.

7. ARTIKULUA

Hilero errolda bat egingo da ordaindu beharra duten pertsonen izenak, helbide fiskala eta tarifak aplikatu ondorengo zerga-kuotak jasoz.

8. ARTIKULUA

Erroldetan bildutako zergaren kuotak udal organo eskudunak horretarako onetsiko duen zerga-egutegian eta zerga-bilketarako ordenantzan ezarriko diren egunetan kobratuko dira.

Bi hileko jarraian kuotarik ordaindu ezean, zerbitzua kendu egingo da.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

23. Ordenantza Fiskala Kultur Zerbitzu Orokorrak Emateagatiko Tasa

VII. AZKEN XEDAPENA

Kultur Zerbitzu Orokorrak Emateagatiko Tasa arautzen duen honako ordenantza fiskala berau argitaratu eta biharamunetik aurrera jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2025eko abenduaren 31ko 249 zk.an argitaratu eta gero, eta hala egongo da harik eta aldaraztea edo indargabetzea erabaki arte.